

Irakurri arretaz beheko testu hau

TELEFONO-KABINA HAIEK!

Gogoratzen naiz garai batean telefono-kabinak non-nahi zeudela; baliotsuak ziren, eta askorentzat, ezinbesteko. Artean mugikorrik ez zen existitzen. Ez dauzkat ahazteko kabina itxi eta klaustrofobiko haiek, ezta euren aurrean batzuetan sortzen ziren ilara luze haiek ere. Gogoan dut barruan zegoenak presio izugarria sentitzen zuela atzeko jende-ilarari begiratuta; eta ondorioz, azkenean hitzak (deitzen zuenarentzat) labur gelditzen ziren. Gogoan dut ilaran zeundenean zein luze egiten zitzaizkizun kabina barrukoaren hitzak eta zein alferreko. Eta gogoan dut kabina haietako estutasuna. Zein deseroso ziren ate mugikor haiek, nola ahaztu? Eta urrutiko norbaitekin hitz egiteko lagun-taldea sartzen ginenean sortzen genuen festa? Hori bai ahaztezina. Gogoan dut makinak bizkor batean jaten zituela txanponak, eta solasaldiaren onenean, klonk, eten egiten zela komunikazioa. Sakeletan txanpon bila hasi egiten zinen baina errenka luzea ikusi eta azkenean etsi egiten zenuen. Zenbat elkarriketa eten dituen 50 zentimetroko makina madarikatuak. Gogoan dut telefono-kabina zerbait zenean. Orain ezer gutxi da. Hasteko, desagertzen joan dira, eta gelditzen diren apurrak Bilboko Etxebarria lantegiko tximinia sinbolikoaren balio bera dute. Edo gutxiago. Etxe inguruan bat dago. Dagoeneko kabina izateari utzi dio. Zutabe bat dela esan genezake. Totem bat. Euriak busti eta eguzkiak kiskali egiten duen azken hondarra. Lehengoan, baina, gizon bat ikusi nuen telefonotik hizketan. Harritu egin nintzen. Txatxua zuen hizpidea. «Ze ordutan joango naiz, orduan?» esan zion beste aldekoari. Eta gero, etxera bidean zalantza gelditu zitzaidan. Telefono horren beste aldean, inor izango al zen?

Goizalde Landabaso. Berria (205-03-10) Testu moldatua

Ikusi al duzu inoiz kabina horietariko bat? Non?

Garai batean asko erabiltzen ziren, gaur egun aldiz ez. Zergatik dela uste duzu?

1. Beheko lauki honetako hitzak, beheko esaldietan, dagozkien tokian idatzi

Oso azkar / Amore eman / jadanik / Derrigorrezko, behar-beharrezko / Apur, hondakin /
Moztu, apurtu / errenkada / gogoan izateko modukoa

- Kabinetarako sortzen ziren **ilara luze** haiek
- Hori bai hori **ahaztezina!**
- Makinak **bizkor batean** jaten zituen txanponak
- Ilara luze hori ikusita, **etsi egiten** zenuen
- Zenbat elkarriketa **eten dituen!**
- **Dagoeneko kabina** izateari utzi dio
- Kabina eguzkiak kiskali duen azken **hondarra da**
- Askorentzat telefono-kabinak komunikatzeko **ezinbesteko** tresnak ziren

2. Beheko lauki honetan asmakizun batzuen izenak dituzu. Beheko azalpenak irakurri eta asmakizun bakoitza dagokion tokian idatzi.

Telefono kabina / Idazteko makina / Karrete-dun argazki kamera / josteko makina / disketea

- Reflex digitalek merkatua erabat hartu dute eta nostalgiko gutxi batzuek baino ez dituzte erabiltzen karretedunak. Hori bai, zenbait profesionalek horiekin egiten dute lan oraindik, kalitatea eta argazkiaren itxura desberdina dela pentsatuta.

Nork ez du gogoan gure amen eta amonen hankaren mugimendu etengabea alkandora bat josten ari zirela? Gaur egun, tramankulu horietako askok etxeetan armairu edo dekorazio lanak egiten dituzte. Baina aspaldi geratu ziren merkatutik kanpo.

Duela nahiko gutxira arte herri eta hirietako txoko gehienetan egoten ziren. Bertan sartu eta nahiko diru ez bazenuen, "klok" baten ondoren, elkarriketa ezin amaituta geratzen zinen. Orain bakan batzuk ditugu, baina apaingarri gisa.

Nik mekanografia gailu hauetan ikasi nuen, zaratatsuak ziren, hori bai, baina lanerako guk horiek erabiltzen genituen. Aspaldi desagertu ziren, eta orain horien ordeztan ordenagailuak eta eramangarriak erabiltzen ditugu.

Aitzindariak izan ziren artxiboak gordetzeko. Espazio gutxi zuten baina, asmakizun ikaragarriak izan ziren bere garaian. Nik oraindik eskola-garaiko batzuk badauzkat liburu artean gordeta